




ESTADÍSTIKA Kultura
 Ohiturak
 Praktikak
 eta
 Kontsumoa
2007 2008

Laburpen Exekutiboa





Euskal Herria



Euskal Autonomi Erkidegoa



Nafarroako Foru Erkidegoa



Iparr Euskal Herria






ESTADÍSTIKA

Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa

Euskal Herria
 2007 ■ 2008



1.

EUSKAL HERRIKO OHITURA, JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALAK: EMAITZA NAGUSIAK



- 1.1. Kultura-jardueretarako interesa
- 1.2. Biztanleen ohitura kulturalak
- 1.3. Jarduera eta kontsumo kulturalen ezaugarriak
- 1.4. Euskarazko jarduerak eta euskal produktuen kontsumoa
- 1.5. Internet erabilera kulturarekiko
- 1.6. Beste jarduera kultural amateur batzuk egiteko ohitura
- 1.7. Alderaketa Europarekin




1. EUSKAL HERRIKO OHITURA, JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALAK: EMAITZA NAGUSIAK

Kapitulu honetan Euskal Herri osoko emaitza nagusien laburpena aurkezten da. Besteak beste, arlo hauek aztertu dira: jarduera kulturekiko interesa, biztanleriaren ohiturak, ohiko kontsumitzaileen ezaugarriak, Interneten erabilera kulturaren arloan, biztanleria elebidunaren praktikak eta kontsumoa, eta amateurren jarduera kulturalak. Europako Batasuneko beste informazio-iturri batzuetatik eskuratutako emaitzekin ere alderatzen da. Datuak Euskal Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008koak dira, beste iturri batzuk aipatzen ez badira, behintzat.

1.1 KULTURA-JARDUERETAKO INTERESA


Musika eta irakurketa dira Euskal Herriko biztanleei gehien interesatzen zaizkien jarduera kulturalak. Bi kasuetan, biztanleek jarduera hauekiko interesa azpimarratu dute beste praktika kultural batzuen gainetik, hala nola zinemaren, arte eszenikoen, museoen edo erakusketen gainetik. Dena dela, interes gutxien pizten duten jarduerak hiru dira: liburutegietara joatea, dantza eta lirika.

1. irudia. Kultura-jardueretako interesaren rankinga (batezbestekoa)




Euskal Herriko biztanleen interes-mailari buruz eginiko analisi baten arabera, EAEn jarduera kulturekiko joera handiagoa dago. Sailkapen honen buruan daude musika EAEn eta Nafarroan eta irakurketa Ipar Euskal Herrian.

2. irudia. EAEko kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)



3. irudia. Nafarroako kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)



4. irudia. Ipar Euskal Herriko kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)



¹ Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.




1.2. BIZTANLEEN OHITURA KULTURALAK

Euskal Herriko biztanleek maizen egiten duten jarduera kulturala musika entzutea da. Zehazki, galdetutako hamar pertsonatik zortzik entzun du musika azken urtean. Bigarrenik, aisiarekin loturiko irakurketa dago (hamar pertsonatik zazpik egin dute azken urtean) eta, azkenik zinemako pelikulak.


Zuzeneko ekitaldien artean azpimarratu behar dira kontzertuak (biztanleen %38,2 kontzerturen batera joan da) eta antzerki-lanak (%21,9). Gutxien egiten diren jarduerak, dudarik gabe, hauek dira: opera (azken urtean biztanleen %6,9 joan da operara) eta dantza-ikuskizunak (%9,5).

5. irudia. Pertsonak, Euskal Herrian azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




Biztanleen ohitura kulturalak desberdinak dira lurraldeen arabera. Ipar Euskal Herriko biztanleek ohitura handiagoa dute inora joaterik eskatzen ez duten jarduerak egiteko (irakurri edo musika entzun), norabait joatea eskatzen dutenekin alderatuta (esaterako, museoetara, erakusketetara edo antzerkira joatea). Bestalde, Nafarroako eta EAeko biztanleen ohiturak oso antzekoak izan ohi dira, eta irakurketa eta musika gailentzen dira haien artean ere. Hala ere, norabait joatea eskatzen duten eta ez duten jardueren arteko desberdintasuna ez da hain esanguratsua.


6. irudia. Pertsonak, EAEn azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)



7. irudia. Pertsonak, Nafarroan azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)



8. irudia. Pertsonak, Ipar Euskal Herrian azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




¹ Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.




Denbora falta eta kostu ekonomikoa dira biztanleek jarduera kultural gehiago ez egiteko arrazoi nagusiak. Denbora falta da kontzertuetara (%43,6), zinemara (%41) eta ikuskizun eszenikoetara (%49,4) ez joateko gehien ematen den arrazoia. Kostu ekonomikoak, bestalde, eragin handiagoa du zinemara (%41,8) edo kontzertuetara (%41,4) joateko orduan, eta eragin askoz txikiagoa ikuskizun eszenikoetara joateko orduan (%27,5). %5,4k soilik uste du eskaintza eskasa dela faktore murriztailea zinemaren kasuan, baina kontzertuei (%26,7) edo ikuskizun eszenikoei (%28) dagokienez, uste hori nabarmen igotzen da.

9. irudia. Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)



Oinarria: Kontzertu gehiagotara joatea gustatuko litzaieken pertsonak, joateko ohitura dutenen %74,5


10. irudia. Zinemara gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)



Oinarria: Zinemara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %58



11. irudia. Antzerkia ikustera gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Ikuskizun eszenikora gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %52,9

1.3. JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALEN EZAUGARRIAK


Irakurtzea eta liburutegietara joatea maiztasun ohiko kontsumitzaileek oso maiz egiten dituzten jarduerak dira. Liburutegietako ohiko erabiltzaileak (biztanleen %19,3) 5,6 aldiz joaten dira hilabetean, batez beste. Desberdintasun nabarmenak daude lurraldearen arabera: intentsitatea altuagoa da EAEn (6 aldiz, batez beste) eta Nafarroan (5,3) Ipar Euskal Herrian baino (3,6). Bestalde, irakurtzeko ohitura dutenek (biztanleen %47,1) hilabetean batez beste 1,8 liburu irakurtzen dituzte.

12. irudia. Azken hilabetean liburutegira joandako aldien batezbestekoa, lurraldearen arabera



Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi batera joan diren pertsonak, biztanleen %19,3)


13. irudia. Azken hilabetean irakurritako liburuen batezbestekoa, lurraldearen arabera



Oinarria: Irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean aisialdiko liburuak irakurri dituzten pertsonak, biztanleen %47,1)


Beste zenbait jarduera kultural ere, hala nola telebista ikustea edo irratia entzutea, oso zabalduta daude Euskal Herrian. Esaterako, telebista ikusten 17,9 ordu ematen ditugu astean batez beste, eta Ipar Euskal Herrian 26 ordutik gora. Bestalde, irratia entzuteko ohitura dutenek (biztanleen %77,4) 17 ordu eskaintzen dizkiote jarduera horri, eta berriro ere Ipar Euskal Herriko ehunekoa altuagoa da, 23,5 ordu. EAE da bi jarduera horiei denbora gutxien eskaintzen dien lurraldea.

14. irudia. Astean telebista ikusten eta irratia entzuten emandako orduen batezbestekoa, lurraldearen arabera




Euskal Herrian musika maiz entzuten duten biztanleek astean 9,2 ordu eskaintzen dizkiote, batez beste, jarduera horri. Kopuru hori zertxobait altuagoa da Ipar Euskal Herrian (11 ordu) eta baxuagoa EAEn (8,7).

15. irudia. Astean musika entzuten emandako orduen batezbestekoa, lurraldearen arabera




Zinemara maiz joaten diren pertsonak (biztanleen %41) gehiagotan joaten dira antzerki-ikuskizunak ikustera joaten direnak baino. Batez beste 3,2 film ikusten dira hiruhilekoan, hau da, hilabetean film bat. Antzerkira joaten direnak, berriz (biztanleen %9,5), hiru hilabetean 1,7 aldiz joaten dira.

16. irudia. Azken hiruhilekoan zinemara joandako aldien batezbestekoa, lurraldearen arabera




17. irudia. Azken hiruhilekoan antzerkia ikustera joandako aldien batezbestekoa, lurraldearen arabera



Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanleen %9,5)


Irakurtzeko ohitura dutenen ia erdiek (Azken hiruhilekoan liburuak irakurri dituztenak) liburuak erosi dituzte azken hiruhilekoan. Euskal Herrian batez beste 4 liburu erosten dira. Batezbesteko hori txikiagoa da Ipar Euskal Herrian (2,7 liburu) eta handiagoa Nafarroan (5 liburu).

18. irudia. Azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruen batezbestekoa, lurraldearen arabera



Oinarria: Azken hiruhilekoko irakurleetatik, epe horretan libururen bat erosi dutenak, biztanleen %44,8)


19. irudia. Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituzten pertsonak, lurraldearen arabera (%)



Base: Azken hiruhilekoan libururen bat irakurri duten pertsonak, biztanleen 69,5%

Musikari dagokionez, azpimarratu behar da galdetutako pertsonen %30,7k musika erosi duela azken hiruhilekoan. Liburuen kasurako lehen aipatutako datuei aurka eginez, musika-erosketa zabalduagoa dago Ipar Euskal Herrian (ia %40) eta gutxiago Nafarroan (%28,2).


20. irudia. Azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak, lurraldearen arabera (%)



1.4. EUSKARAZKO JARDUERAK ETA EUSKAL PRODUKTUEN KONTSUMOA

Azken hilabetean kontzertuetara joan diren pertsonen portzentaje handi bat (%67,6) euskal musikako kontzertuetara joan da. Horrez gain, musika erosi duten pertsona gehienek (%62,1) euskal musika hautatu dute.

21. irudia. Pertsona elebidunak, azken hiruhilekoko euskal musikaren kontsumoaren eta lurraldearen arabera (%)




- (1) Oinarria: Noizbait musika erosi dutenak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,7
- (2) Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan direnak, biztanle elebidunen %23,6

Azken urtebetean antzerkira joan diren herritar elebidunen %46,8k baino gehiagok euskarazko ikuskizunen bat ikusi dute. Hiru lurraldeen artean, Ipar Euskal Herria da nagusi; %88,8ko portzentajea du.

Azken hiruhilekoan liburu bat irakurri duten elebidunen (biztanle elebidunen %66,6) herenak euskarazko liburuak irakurri ditu. Kasu horretan, Nafarroan dago portzentajerik handiena (%45,4); nahiko urrun ditu Ipar Euskal Herria (%39,4) eta, batez ere, EAE (%35,7).

22. irudia. Pertsona elebidunak, euskarazko kultura-jardueren eta lurraldearen arabera (%)




- (1) Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri dutenak, biztanle elebidunen %66,6
- (2) Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanle elebidunen %24,7



Biztanle elebidun gutxi joaten dira bertsolaritza-emanaldietara. Biztanleen %17,3 joan da bertso-saioren batera azken urtebetean, eta talde handi batek (%67,8k) ez du joateko ohiturarik.


Bertsolaritza-emanaldiak gehiago finkatuta daude EAEn eta Nafarroako biztanleetan. EAEn, elebidunen %8,7 joan da azken hiruhilekoan bertsolaritza-emanaldi batera; Nafarroan, berriz, %7. Ipar Euskal Herrian 3,7raino jaisten da zifra hori.

23. irudia. Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)



Internet erabiltzeko ohitura duten elebidunen erdiek euskarazko edukiak erabiltzen dituzte. Web guneetara sartzeko eta dokumentazioa eskuratzeko erabiltzen da, batik bat, sarea (%37,4). Ondoren, musika eskuratzeko (%22,2), blogetan parte hartzeko, liburuak irakurri eta deskargatzeko (%7,2) eta foroetan sartzeko (%6,1).

24. irudia. Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara sartzearen eta lurraldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Nolabaiteko jarduera kulturala egiteko sarera sartzeko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %45,6.



1.5. INTERNET ERABILERA KULTURAREKIKO


Galdetutako hamar pertsonatik lauk erabiltzen dute Internet kontsumo kulturalen bat egiteko. Euskal Herrian oso finkatuta dago Internet kontsumo kulturalerako tresna gisa. Biztanleen %41,4k dio sarea erabiltzen duela kontsumo kulturalen baterako. Sare bidezko kontsumo kulturala gazteen artean dago hedatuen. Euskal Herriko 15 eta 24 urte arteko hamar gaztetik ia zazpi erabiltzen du sarea kontsumo kulturalerako; 25 eta 34 urte artekoek ere asko erabiltzen dute (%63,3k erabiltzen du sarea horretarako). Bestalde, 64 urtetik gorako pertsonetan jarduera hori ez dago hain hedatua (%7,7k baino ez du erabiltzen Internet kontsumo kulturalerako).

25. irudia. Pertsonak, kultura-kontsumorako Internetera sartzearen eta lurraldearen arabera (%)




Ikasketa-mailak asko baldintzatzen du Internet kontsumo kulturalerako erabiltzea. Emaitzetan ageri da unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak ohitura dutela Internet jarduera kulturaletarako erabiltzeko (%66,6k), eta ikasketarik ez dutenek, berriz, oso gutxi erabiltzen dutela horretarako (%8,8k).

26. irudia. Kultura-kontsumorako Internet erabiltzen duten pertsonak, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren eta ikasketa-mailaren arabera (%)



Kultura-gaiei buruzko web guneak kontsultatzea da sareko kontsumo kulturalaren jardura nagusia; ohiko erabiltzaileen %60,5 sartzten dira Interneten helburu horrekin. Egunkariak irakurtzea (%42,5), musika entzutea (%38), sarrerak erostea (%32) eta bideoak edo filmak ikustea (%26,8) ere nabarmentzen dira talde horretan.

27. irudia. Pertsonak, Interneteko kultura-edukietara sartzearen arabera (%)




Oinarria: Kultura-kontsumoren bat egiteko Internet erabiltzen duten pertsonak, biztanleen %41,4

1.6. BESTE JARDUERA KULTURAL AMATEUR BATZUK EGITEKO OHITURA

Galdetutako pertsonen herenak kultura-jardueretan parte hartu du azken urtebetean. Alderdi horretatik, lurralderik aktiboena Ipar Euskal Herria da (biztanleen %42,7).

28. irudia. Pertsonak, azken urtebetean beste kultura-jarduera batean izandako parte-hartzearen eta lurraldearen arabera (%)



Argazkilaritza da Euskal Herriko biztanleen artean gehien zabaldua dagoen kultura-jarduera. Jardueraren bat egin duten pertsonen artean argazkilaritza nabarmentzen da, batik bat EAEn eta Nafarroan; asko dira, halaber, margolaritzan aritzen direnak edo musika-tresnaren bat jotzen dutenak (Ipar Euskal Herrian batik bat).

29. irudia. Azken urtebeteko Euskal Herriko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,7

30. irudia. Azken urtebeteko EAeko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,3

31. irudia. Azken urtebeteko Nafarroako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %32,2


32. irudia. Azken urtebeteko Ipar Euskal Herriko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %42,7

Emaitzetan agertzen denez, kultura-jarduerak behera egiten dute adinean aurrera egin ahala. Biztanle gazte gehienek —15 eta 24 urte artekoek— kultura-jardueraren batean parte hartu dute azken urtebetean (%42,2), eta, adinak aurrera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek; 64 urtetik gorako biztanleetan agertzen da emaitzarik baxuena (%27,1).


33. irudia. Azken urtebetean beste kultura-jarduera batean parte hartu duten pertsonak, adin-taldearen arabera (%)



Adinaren arabera, alde handiak daude biztanleen kultura-jardueren artean. Musika-tresnak jotzea da gazteenen jarduerarik ohikoena; erdiko adinetan, berriz, argazkilaritza da nagusi. Bestalde, 64 urtetik gorakoek koruetan eta arte plastikoetan parte hartzen dute.

Euskal Herriko biztanleen %12,1ek aktiboki parte hartzen du kultura-elkarteetan. Alde handiak daude lurraldeen artean; Ipar Euskal Herria nabarmentzen da bereziki (biztanleen %34,5), eta askoz ehuneko txikiagoak daude Nafarroan (%11,4) eta EAEn (%9,5).

34 . irudia. Pertsonak, azken urtebetean parte hartu duten kultura-jardueren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken urtean jarduera kulturalak burutu dituzten pertsonak, biztanleen %34,7



1.7. BALDERAKETA EUROPAREKIN

Atal honetan, alderaketa labur bat egiten da Europako kultura-ohituren adierazleekin, Eurostat-en informazioa erabilita. Adierazle homologagarriak soilik hautatu dira, eta informazioaren erreferentzia-aldia 2007koa da. Hala eta guztiz ere, iturri bat baino gehiagotatik eskuratutako datuen irakurketa alderatua kontu handiz egin behar da, metodologia-desberdintasun handiak daudelako, eta informazioa une batean baino gehiagotan jaso delako.

35. irudia. Euskal Herriko eta Europako kultura-adierezleen alderaketa (%)



(1) Iturria: Euskal Herriko kultura -ohiturei, -praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia

(2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007

Azken urtebetean egindako kultura-ohituren datuen alderaketan Europako Batasunaren emaitzak gainditu ditu Euskal Herriak oinarrizko hiru adierazletan, hau da, zinemara joatean, liburuak irakurtzean, eta, azkenik, musika-kontzertuetara joatean. Alde txikia badago ere, Euskal Herriko biztanleek gainditu egin dute Europakoen parte-hartzea.


Bestalde, Europako Batasunean Euskal Herrian baino askoz maizago egiten diren bi ohitura daude, liburutegietara eta antzerkira joatea, alegia. Arte eszenikoetan daude alderik handienak; izan ere, Europako batezbestekoa Euskal Herrikoa baino hamar puntu handiagoa da.



ESTADÍSTIKA


Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa

Euskal Autonomi Erkidegoa
2007 ■ 2008



1.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA-KO OHITURA, JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALAK. EMAITZA NAGUSIAK



- 1.1. Kultura- jardueretarako interesa
- 1.2. Biztanleen ohitura kulturalak
- 1.3. Jarduera eta kontsumo kulturalen ezaugarriak
- 1.4. Euskarazko jarduerak eta euskal produktuen kontsumoa
- 1.5. Internet erabilera kulturarekiko
- 1.6. Beste jarduera kultural amateur batzuk egiteko ohitura
- 1.7. Alderaketa Europarekin

EAE



1. EAE-KO OHITURA, JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALAK. ~~IRUDIAK~~ **IRUDIAK**


Kapitulu honetan, EAEn egindako eragiketa estatistikotik ateratako emaitza nagusiak laburtuko ditugu. Besteak beste, arlo hauek aztertu dira: jarduera kulturalerako interesa, biztanleriaren ohiturak, praktika eta kontsumo kulturalaren ezaugarriak eta biztanleria elebidunaren praktikak eta kontsumoa, Interneten erabilera kulturaren arloan eta beste jarduera kultural batzuk. Azkenik, Europako Batasuneko beste informazio-iturri batzuetatik lortutako emaitzekin egindako konparaketa gaineratu dugu. Kapitulu honetan agertzen diren datuak Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei,

-jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008 lanean jasotakoak dira, beste iturri batzuk zehazten direnean salbu.

1.1. KULTURA-JARDUERETARAKO INTERESA

EAEko biztanleek musika entzuteko eta irakurtzeko interesa agertu dute, batez ere: 10etik 7 inguruko edo 7tik gorako puntuazioa jaso dute jarduera kultural horiek lurralde guztietan (musikak 7,4 puntuko batezbesteko globala du, eta irakurketak 7koa). Horien ondoren, eta modu zehatzagoan, liburu eta egunkarien irakurketak, zinemak eta egungo musikaren kontzertuek 6ko puntuazioa edo 6tik gorakoa dute. Erdi-bidean daude antzerkia (5,3ko puntuazioa) eta musika klasikoko kontzertuak (5,1). Bestalde, bertsolaritzak biztanleria elebidunaren artean sortzen duen interesa azpimarratu behar da (5,2). Museoek, liburutegiek eta ikusizko arteek 4 inguruko puntuazioa dute. Azkenik, liririk eta dantzak puntuazio txikiagoak dituzte.


1. irudia. Kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)




¹ Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.

Interes horiek finkatuta daude EAEko biztanlerian; izan ere, ez dago ia alderik hiru lurraldeen artean. Dena den, Gipuzkoako biztanleek puntuazio txikiagoak emateko joera dute.


2. irudia. Arabako kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)



3. irudia. Bizkaiko kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)



4. irudia. Gipuzkoako kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)




¹ Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.

1.2. BIZTANLEEN OHITURA KULTURALAK

Grabatutako musika entzutea eta irakurtzea dira herritarren ohitura kultural nagusiak. Galdetutako herritarren hiru laurdenek baino gehiagok (%77,9) musika entzun dute azken urtean, eta, epealdi horretan, 10 pertsonatik ia 7k libururen bat irakurri dute aisialdian.

5. irudia. Pertsonak, EAEn azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




Leku jakin batera joatea eskatzen duten jarduera kulturelek, ostera, askoz ere ehuneko txikiagoak dituzte. Biztanleen %54,1 joan dira zinemara azken urtean, %39,1ek museoak bisitatu dituzte eta %30,2 liburutegietara joan dira.

Zuzeneko ekitaldien artean, musika-kontzertuetara joaten da jende gehiena; ondoren, antzerkira, eta, dantza eta opera ikustera joaten da jende gutxiena. Herritarren %37,7 joan dira kontzertuetara, %21,8 antzerkira, %9,3 dantza-ikuskizunetara eta %7,6 lirika-ikuskizunetara.


Oro har, Arabako biztanleek agertu dute ohitura gehien aztertutako jarduera kulturaletarako. Dena den, musikarekin lotutako jarduerari (musika entzutea eta kontzertuetara joatea) eta opera- eta dantza-ikuskizunetara joateko ohiturari dagokienez, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrek ohitura handiagoa adierazi dute.

¹ Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.


6. irudia. Pertsonak, Araban azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)



7. irudia. Pertsonak, Bizkaian azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)



8. irudia. Pertsonak, Gipuzkoan azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




¹ Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.


Musika entzuteaz, irakurtzeaz eta zinemara joateaz gain, herritar gehienek ez dute beste jarduera kulturalik egiteko ohiturarik adierazi. Azken urtean jarduera horiek egin ez dituzten herritarrengan arreta jarrita, azpimarratzekoa da hamar pertsonatik sei baino gehiago ez direla museoetara edo kontzertuetara joan epealdi horretan, eta hamarretik ia zortzik ez dutela zuzeneko antzerkirik ikusi.

Zinemara, zuzeneko musika-kontzertuetara eta ikuskizun eszenikoetara gehiago joan nahiko luketenen denbora falta eta kostu ekonomikoa aipatzen dituzten oztopo nagusi gisa. Hiru jarduera kultural horietan, denbora falta da adierazitako faktore nagusia (herritarren erdiak, gutxi gorabehera). Kostu ekonomikoari, berriz, garrantzi txikixeagoa eman diote: zinemaren eta kontzertuen kasuan, herritarren %40k baino gehiagok aipatzen dute, eta, ikuskizun eszenikoen kasuan, %35ek. Bestalde, eskaintzaren eskasia aipatzen dute, batez ere, kontzertuen eta ikuskizun eszenikoen kasuan (%24,6 eta %21,1, hurrenez hurren).


9. irudia. Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)



10. irudia. Zinemara gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)



11. irudia. Antzerkia ikustera gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Ikuskizun eszenikora gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %50,9

1.3. JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALEN EZAUGARRIAK

Ohiko kontsumitzaileek irakurketarekin lotutako jarduera asko egiten dituzte (liburuak irakurtzea eta liburutegietara joatea). Azken hilabetean liburutegira joan diren herritarrak (%17,5) 6 aldiz joan dira, batez beste.


12. irudia. Azken hilabetean liburutegira joandako aldien batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera



Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi batera joan diren pertsonak, biztanleen %17,5)

Bestalde, ohiko irakurleek (herritarren %45,7) 1,8 liburu irakurri dituzte azken hilabetean.

13. irudia. Azken hilabetean irakurritako liburuen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Oinarria: Irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean aisialdiko liburuak irakurri dituzten pertsonak, biztanleen %45,7)




Astean 16 ordutik gora telebista ikusteko eta irratia entzuteko. Asteko kontsumo kulturalen artean, herritarrek telebista ikusten pasatzen dute denbora gehiena (16,8 ordu), eta, segidan, irratia entzuten (16 ordu). Bestalde, ohiko kontsumitzaileek, batez beste, 8 ordu baino gehixeago pasatzen dituzte asteko (8,7) grabatutako musika entzuten.

14. irudia. Astean telebista ikusten eta irratia entzuten emandako orduen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Zinemara, antzerkira eta musika-kontzertuetara joateko maiztasunari dagokionez, zenbait diferentzia daude. Ohiko kontsumitzaileak 3,2 aldiz joan dira zinemara azken hiruhilekoan. Antzerkira, berriz, 1,7 aldiz, epealdi berean.


15. irudia. Astean musika entzuten emandako orduen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera



16. irudia. Azken hiruhilekoan zinemara joandako aldien batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




17. irudia. Azken hiruhilekoan antzerkia ikustera joandako aldien batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera



Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanleen %9,2)


Azken hiruhilekoan liburuak erosi dituzten irakurleak biztanleriaren erdia dira, gutxi gorabehera (3,8 ale, bat ez beste). Bestalde, 10 pertsonatik 3k musika erosi dute epealdi berean.

18. irudia. Azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Oinarria: Azken hiruhilekoko irakurleetatik, epe horretan libururen bat erosi dutenak, biztanleen %49,1

19. irudia. Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituzten pertsonak, Lurralde Historikoaren arabera (%)



20. irudia. Azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak, Lurralde Historikoaren arabera (%)




1.4. EUSKARAZKO JARDUERAK ETA EUSKAL PRODUKTUEN KONTSUMOA

Herritar elebidunek euskal musika asko kontsumitzen dute, kontzertuetara joanez nahiz musika erosiz. Zuzeneko musika entzuteko ohitura duen publikoaren %64,6 euskal musikako kontzertuetara joan da eta erosleen %62,5ek euskal musika erosi dute.

Halaber, herritar elebidunek euskarazko antzerki asko ikusi dute azken urtean, batez ere, Gipuzkoan. Azken urtean antzerkia ikustera joan diren herritar elebidunen %46,8 euskarazko lanak ikustera joan da. Gipuzkoako herritarren kasuan, handiagoa da ehunekoak (%52,8). Ehuneko hori Bizkaikoa baino 10 puntu handiagoa da, eta, Arabaren kasuan, diferentzia are handiagoa da (%39,5).


Zuzeneko ikuskizunen artean, azken urtean, EAEko biztanleria elebidunaren %18,1 joan da bertsolaritza-emanaldiak ikustera.

21. irudia. Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)



Azken hiruhilekoan, 10 irakurle elebidunetik 3-4k irakurri dute euskaraz. Arlo horretan, Araba nabarmendu behar da. Izan ere, irakurle elebidunen %47,3k euskaraz irakurtzen dute. Bizkaian, berriz, %31,3k eta Gipuzkoan %37,6k.


22. irudia. Pertsona elebidunak, azken hiruhilekoko euskal musikaren kontsumoaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)



(1) Oinarria: Noizbait musika erosi dutenak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,3

(2) Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan direnak, biztanle elebidunen %23,4

23. irudia. Pertsona elebidunak, euskarazko kultura-jardueren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




(1) Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri dutenak, biztanle elebidunen %66,9

(2) Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanle elebidunen %24,5

Jarduera kulturalak egiteko Internet erabiltzen duten herritar elebidunen erdiak (%46,1) euskarazko edukietara jotzen du nahiko maiz. Eduki horien artean, web gune edo dokumentazio kulturalak (%36,7) eta musika (%22,4) azpimarratu behar dira.

Lurraldeka, batez ere, Bizkaiko herritarrek jotzen dute euskarazko edukietara. Hala, Internet helburu kulturaletarako erabiltzen dutenen ia %55ek nahiko maiz egiten dute jarduera hori; Araban eta Gipuzkoan, berriz, %46 inguruk.

24. irudia. Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara sartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Nolabaiteko jarduera kulturala egiteko sarera sartzeko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %46,1

1.5. INTERNET ERABILERA KULTURAREKIKO


Internet, kultura-kontsumorako bitarteko bezala indartuz doa, bereziki gizon eta biztanleria gaztearen artean. 10etatik kasik 4 pertsonak, sarea, nolabaiteko kultura-kontsumoa egiteko erabiltzen du. Gizonek 10 puntutako abantaila dute emakumeekiko (%44,3 %34,2ren aurrean). Gazteen artean (15etik 34 urtetara) eta goi mailako ikasketak dituen biztanleriaren artean erabilera hau %60tik gorakoa da.0.

Arabako etxeek Internet konexioa eta informatika-ekipamendua edukitzeko duten aukera handiagoari lotuta, bitartekari honen bidez garatutako jarduera kulturalak hedatuagoak daude lurralde honetan (Arabako biztanleriaren %46,4k Internet arrazoi kulturalengatik erabiltzen du, Bizkaian eta Gipuzkoan %38 kegiten duelarik).

25. irudia. Pertsonak, kultura-kontsumorako Internetera sartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




26. irudia. Kultura-kontsumorako Internet erabiltzen duten pertsonak, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerraren tamainaren arabera (%)



Batez ere, kulturarekin lotutako web guneak ikusteko, egunkariak irakurtzeko eta musika entzuteko erabiltzen da sarea. Hain zuzen, helburu kulturaletarako Internet erabiltzeko ohitura duten herritarren artean (biztanleriaren %39,1), %60 baino gehixeagok kulturari buruzko web guneak ikusteko erabiltzen dute, %45,9k egunkarien edizio digitalak irakurtzeko eta %20,4k dokumentazio-zentro eta liburutegi birtualetan kontsultak egiteko. Jarduera horiez gain, Internet asko erabiltzen da musika entzuteko ere (%40,1). Internet bidez produktu kulturalak erosteko ohitura ez dago oso zabalduta oraindik; bai, ordea, ikuskizun kulturaletarako sarrerak erostekoa (%35,6).

27. irudia. Pertsonak, Interneteko kultura-edukietara sartzearen arabera (%)




Oinarria: Kultura-kontsumoren bat egiteko Internet erabiltzen duten pertsonak, biztanleen %39,1

1.6. BESTE JARDUERA KULTURAL AMATEUR BATZUK EGITEKO OHITURA

Herritarren herenak baino gehiagok jarduera kulturalak egiten ditu modu amateurrean. Arabako parte-hartze maila pixka bat handiagoa da beste lurraldeetako baino (herritarren %35,1).

28. irudia. Pertsonak, azken urtebetean beste kultura-jarduera batean izandako parte-hartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Argazkilaritza da hiru lurraldeetan gehien egiten den jarduera kulturala. Berezi, Gipuzkoan nabarmentzen da: jarduera amateurren batean parte hartzen duten herritarren ia %35ek argazkilaritza egiten dute. Jarduera horren atzetik daude pintura eta idazketa: %18 inguruko parte-hartzea dute. Lurraldeka, pinturarekin lotutako jardueretako parte-hartzea handiagoa da Araban (%22,7). Idazketa, berriz, Gipuzkoan eta Bizkaian gehiago sustraituta dago (%21,3 eta %19,1, hurrenez hurren).

29. irudia. Azken urtebeteko EAEko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,3

30. irudia. Azken urtebeteko Arabako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartutuden pertsonak, biztanleen %35,1

31. irudia. Azken urtebeteko Bizkaiko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,4


32. irudia. Azken urtebeteko Gipuzkoako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %33,9


Adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da jarduera kulturaletan modu amateurren parte hartzeko ohitura. 35 urtetik beherako 10 gaztetik 4k baino gehiagok jarduera kulturalen batean parte hartzen dute; 55 urtetik gorakoen artean, berriz, %26,7k bakarrik.

33. irudia. Azken urtebetean beste kultura-jarduera batean parte hartu duten pertsonak, adin-taldearen arabera (%)



Gazteenek (15 eta 24 urte artekoek) egiten dituzten jarduera kultural amateurren artean, hauek dira nagusiak: musika-tresna bat jotzea (jarduera kulturaletan modu aktiboan parte hartzen dutenen %33,4k egiten dute), argazkilaritza (%28,8), idazketa (%25,6) eta pintura (%24,8). Beste adin-taldeetan, arte plastikoek garrantzi handiagoa dute, eta, adinekoen artean (55 urtetik gorakoak), abesbatzetan parte hartzea nabarmendu behar da.


34. irudia. Pertsonak, azken urtebetean parte hartu duten kultura-jardueren eta adin-taldearen arabera (%)



1.7. ALDERAKETA EUROPAREKIN

Atal honetan, alderaketa labur bat egin da Europako ohitura kulturekin, Eurostaten eta Espainiako Kultura Ministerioaren informazioa erabilia. Adierazle homologagarriak bakarrik erabili dira, eta informazioaren erreferentzia-aldiak 2007 ingurukoak dira. Hala eta guztiz ere, iturri bat baino gehiagotatik eskuratutako datuen irakurketa alderatua kontu handiz egin behar da, metodologia-desberdintasun handiak daudelako, eta informazioa une batean baino gehiagotan jaso delako.

35. irudia. EAEko eta EUROPAko kultura-adierazleen alderaketa (%)



(1) Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia

(2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007

(3) Iturria: Espainiako ohitura eta jardura kulturalen inkesta 2006-2007, Kultura Ministerioa


Liburuen irakurketari dagokionez, EAEn emaitza hobeak lortu dira European eta Estatuan baino. Liburuen irakurketaren arloan, EAE pixka bat gorago dago Europako batezbestekoa baino. Espainiako herritarrekiko, berriz, aldea are handiagoa da.

Bestalde, EAEko herritarrek Europakoek eta Espainiakoek baino ohitura handiagoa dute, batez beste, zinemara joateko. Dena den, ez dago alde nabarmenik: EAEko ehunekoa Estaturakoa baino bi puntu handiagoa da eta Europakoa baino hiru puntu handiagoa.

Musika-kontzertuetara joateko ohiturari dagokionez, ez dago ia alderik EAEko eta Europako datuen artean. Espainiako Kultura Ministerioaren inkestan musika klasikoko eta egungo musikako kontzertuak bereizten dira. Beraz, kontu handiz egin behar da konparaketa.

European ohitura handiagoa dago antzerkira joateko. Hala, EAEko ehunekoa (%21,8) Europakoa baino hamaika puntu txikiagoa da, eta hurbilago dago Espainiako ehunekotik (%19).


EAEko hamar pertsonatik hiru liburutegira joan dira azken urtean. Europako ehunekoa handiagoa da (%35), Espainiako Kultura Ministerioak jasotakoa, berriz, askoz ere txikiagoa (%17,6).



ESTADÍSTIKA


Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa

Nafarroako Foru Erkidegoa
2007 ■ 2008



1.

NAFARROAKO OHITURA, JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALAK: EMAITZA NAGUSIAK



- 1.1. Kultura-jardueretarako interesa
- 1.2. Biztanleen ohitura kulturalak
- 1.3. Jarduera eta kontsumo kulturalen ezaugarriak
- 1.4. Euskarazko jarduerak eta euskal produktuen kontsumoa
- 1.5. Internet erabilera kulturarekiko
- 1.6. Beste jarduera kultural amateur batzuk egiteko ohitura
- 1.7. Alderaketa Europarekin



1. NAFARROAKO OHITURA, JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALAK: EMAITZA NAGUSIAK

Nafarroan egindako estatistika-eragiketaren emaitza nagusien azterketa ageri da kapitulu honetan. Alderdi hauek aztertzen ditu: biztanleek jarduera kulturaletarako duten interesa, haien ohiturak, kultura-jardueren eta kontsumoaren ezaugarriak, biztanle elebidunen jarduerak eta kontsumoa, Interneten kulturarako erabilera eta beste kultura-jarduera batzuk. Azkenik, Europako Batasuneko beste informazio-iturri batzuetatik eskuratutako emaitzekin alderatu dira. Datuak Nafarroako Foru Erkidegoko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008koak dira, beste iturri batzuk aipatzen ez badira, behintzat.

1.1. KULTURA-JARDUERETARAKO INTERESA

Musika entzuteak (7,4) eta irakurtzeak (6,9) sortzen dute interes gehien. Musika-kontzertuek ere nahiko interes handia sortzen dute (musika klasikoak 5a jaso du; gaur egungo musikak, berriz, 5,9). Beste jarduera batzuek —arte-galerietara, museoetara edo erakusketetara joateak, adibidez— ez du hain balorazio ona jaso (4 eta 4,7 arteko balorazioak dituzte, batez beste). Maila apalagoa du liburutegietara joatearen balorazioak (3,7). Liririkak (3,3) eta dantzak (3,6) ere interes gutxiago sortzen dute; antzerkiak, berriz, balorazio hobea du (5,1). Biztanleen zati handi batek zinemara joateko interesa du (5,8). Nabarmentzekoak dira bertsolaritza-emanaldiak ere, oso balorazio positiboa baitute elebidunen artean (5,7).


1. irudia. Kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)




¹ Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.

Bizilekuaren arabera, Iruñea ingurukoei interes handiagoa sortzen diete kultura-jarduerari gehienek; adibidez, musikak, irakurketak, liburuak edo egunkariak.


2. irudia. Mendialdeko kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)




3. irudia. Iruñeko kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)



4. irudia. Erdialdeko kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)



5. irudia. Erriberako kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)




¹ Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.



1.2. BIZTANLEEN OHITURA KULTURALAK

Kultura-jarduerak hainbat mailatan eragiten dute biztanleen eguneroko bizitzan. Gehienek musika entzuteko, irakurtzeko eta zinemara joateko ohitura dute; gainerako kultura-jarduerak, berriz, handiagoak edo txikiagoak izanik ere, kolektibo minoritarioak erakartzen dituzte.

6. irudia. Pertsonak, Nafarroan azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




Irakurketa eta musika entzutea ondo finkatutako ohiturak dira Nafarroan. Iruñea inguruko biztanleek gehiago egiten dituzte, oro har, aztertutako jarduerak.

Balio ertainak dituzte zinemara eta musika-kontzertuetara joateak; galdetutako hamar pertsonatik seik esan dute zinemara joan direla azken urtebetean, eta %44k, berriz, kontzerturen batera joan dela denbora-tarte horretan bertan.


Gainerako jarduerak maila apalagoan egiten dira: gutxiengoa joan da azken urtebetean museoetara (%38,4), liburutegietara (%36,5), galerietara eta erakusketetara (%30,4).

Hauek dira bertaratze gutxiena duten kultura-emanaldiak eta jarduerak, ordenan: antzerkia (%25), bertsolaritza-emanaldiak (%18,1 elebidunen artean), dantza-emanaldiak (%9,9) eta opera (%4,9).


7. irudia. Pertsonak, Mendialdean azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




8. irudia. Pertsonak, Iruñean azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)



9. irudia. Pertsonak, Erdialdean azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)



10. irudia. Pertsonak, Erriberan azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




¹ Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.




Denbora-faltak eta kultura-jardueren kostuak eragozten dute gehiago joatea. Antzerkiaren eta kontzertuen kasuan, eskaintza nahikoa ez dela ere adierazi dute, batik bat joateko ohitura dutenek.


11. irudia. Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)



12. irudia. Zinemara gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




13. irudia. Antzerkia ikustera gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)



1.3. JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALEN EZAUGARRIAK

Nafarroako kultura-jarduerek intentsitate handia dute, batik bat publiko minoritarioa dutenek. Liburutegira joateko ohitura dutenak hilean 5,3 aldiz joaten dira; zinema-aretoetara joateko ohitura dutenak hiruhilekoan 3,4 aldiz joaten dira, eta antzerkira joateko ohitura dutenak, berriz, 1,8 aldiz denbora-tarte horretan bertan.


14. irudia. Azken hilabetean liburutegira joandako aldien batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera



Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi batera joan diren pertsonak, biztanleen %25,0)

Biztanleen erdiak, gutxi gorabehera, liburuak irakurri ditu azken hiruhilekoan, eta libururen bat erosi du denbora-tarte horretan bertan (biztanleen %48,2).

15. irudia. Azken hilabetean irakurritako liburuen batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




Oinarria: Irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean aisialdiko liburuak irakurri dituzten pertsonak, biztanleen %47,7)


Telebista- eta irrati-kontsumoa (txikiagoa, bigarrena) handiak dira. Are gehiago, beste kontsumo batzuk ez bezala, ia biztanle guztiei dagokie.

Astean musika entzuten emandako denbora 10,2 ordu dira, batez beste; musika, berriz, biztanle gutxik erosten du.


16. irudia. Astean telebista ikusten eta irratia entzuten emandako orduen batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




17. irudia. Astean musika entzuten emandako orduen batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




18. irudia. Azken hiruhilekoan zinemara joandako aldien batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera



19. irudia. Azken hiruhilekoan antzerkia ikustera joandako aldien batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




20. irudia. Azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruen batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




Oinarria: Azken hiruhilekoko irakurleetatik, epe horretan libururen bat erosi dutenak, biztanleen %48,2)

21. irudia. Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituzten pertsonak, eremu geografikoaren arabera (%)



22. irudia. Azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak, eremu geografikoaren arabera (%)




1.4. EUSKARAZKO JARDUERAK ETA EUSKAL PRODUKTUEN KONTSUMOA

Nafarroako biztanle elebidunek lotura estua dute euskal musikarekin: elebidun gehienak kontzertuetara (%76,6) joaten dira eta euskal musika erosten dute (%66,9). Bereziki altuak dira mendialdeko eta erdialdeko ehunekoak.

Euskarazko liburuak irakurketari dagokionez, biztanle elebidunen %45,4k irakurtzen du. Noiz edo noiz antzerkira joan diren elebidunen %47,4k euskarazko emanaldiak ikusi dituzte.


23. irudia. Pertsona elebidunak, azken hiruhilekoko euskal musikaren kontsumoaren eta eremu geografikoaren arabera (%)



(1) Oinarria: Noizbait musika erosi dutenak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,9

(2) Oinarria: Azken hiruhilekoko kontzertuetara joan direnak, biztanle elebidunen %30,5

24. irudia. Pertsona elebidunak, euskarazko kultura-jardueren eta eremu geografikoaren arabera (%)




(1) Oinarria: Azken hiruhilekokoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri dutenak, biztanle elebidunen %70,8

(2) Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanle elebidunen %26,4

Biztanle elebidunen %18,1 bertsolaritza-emanaldietara joan da azken urtebetean.


25. irudia. Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)



Euskarazko kultura-edukietara sartzten diren Internauta elebidunen erdiek, gutxi gorabehera, web guneak eta dokumentazioa kontsultatzen dituzte; %18k, berriz, musika entzuten edo deskargatzen du.



26. irudia. Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara sartzearen eta eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)



Oinarria: Nolabaiteko jarduera kulturala egiteko sarera sartzeko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %49,4


1.5. INTERNET ERABILERA KULTURAREKIKO

Internet kulturarako erabiltzea oso zabaldua dago Nafarroako biztanleen artean: biztanleen %42,3k Internet erabiltzen du jarduera kulturalen baterako.


Iruñea inguruko biztanleek erabiltzen dute gehien Internet kulturarako.

Biztanleen profilari begiratuta, azpimarratzekoa da gizonezkoek ohitura gehiago dutela jarduera kulturaletarako sarera jotzeko (gizonezkoen %47,1ek eta emakumezkoen %37,6k).


Elebidunak gehiago sartzen dira Interneten elebakarrak baino: Diferentzia hori azaltzen du, neurri handi batean, bi biztanlerien piramidearen osiera oso ezberdina izateak.



27. irudia. Pertsonak, kultura-kontsumorako Internetera sartzearen eta eremu geografikoaren arabera (%)




28. irudia. Kultura-kontsumorako Internet erabiltzen duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerraren tamainaren arabera (%)



Gazteek erabiltzen dute gehien sarea jarduera kulturaletarako. 25 urtetik beherakoen sarbide-maila %70etik gorakoa da; 44 urtetik gorakoena, %40koa, eta 54 urtetik beherakoena, berriz, %25 baino txikiagoa.

Ikasketa-maila altuagoa duten pertsonak gehiago erabiltzen dute: goi-mailako ikasketak dituzten biztanle gehienek (hamarretik ia zazpik) Internet erabiltzen dute jarduera kulturaletarako; bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen %50ek, gutxi gorabehera, eta lehen mailakoak dituztenen %30ek.

29. irudia. Pertsonak, Interneteko kultura-dukietara sartzearen arabera (%)




Oinarria: Kultura-kontsumoren bat egiteko Internet erabiltzen duten pertsonak, biztanleen %42,3

1.6. BESTE JARDUERA KULTURAL AMATEUR BATZUK EGITEKO OHITURA

Galdetutako pertsonen herenak baino gutxiagok esan du jarduera kulturalen bat egin duela amateur gisa. Jarduera horiek egiteko maila apur bat handiagoa da Erriberan; han, biztanleen %35 inguruk esan du jarduera kulturalen bat egiten duela.



30. irudia. Pertsonak, azken urtebetean beste kultura-jarduera batean izandako parte-hartzearen eta eremu geografikoaren arabera (%)




Horrelako jarduerak egiten dituztenetatik, hauek nabarmentzen dira, ordena honetan: argazkilaritza (jarduerakulturalen bat amateur gisa egiten duten pertsonen %28,6 egiten du), marrazketa edo margolaritza (%21,3), instrumentu bat jotzea (%19,3) eta beste arte plastikoak (%14,2).

31. irudia. Azken urtebeteko Nafarroako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %32,2


32. irudia. Azken urtebeteko Mendialdeko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %30,4




33. irudia. Azken urtebeteko Iruñeko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %32,3

34. irudia. Azken urtebeteko Erdialdeko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %28,7


35. irudia. Azken urtebeteko Erriberako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)



Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,7

Gazteenek eta 35 eta 44 urte artekoek egiten dituzte gehien jarduera kulturalak amateur gisa.


36. irudia. Azken urtebetean beste kultura-jarduera batean parte hartu duten pertsonak, adin-taldearen arabera (%)



Adinak eragina du jarduera amateurren modalitate bat edo bestea hautatzean. Gazteenen artean, instrumentuak jotzeak pisu handia du; helduen artean, argazkilaritzak; beste arte plastikoek eta koruek, berriz, 64 urtetik gorakoan artean.



37. irudia. Pertsonak, azken urtebetean parte hartu duten kultura-jardueren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken urtean jarduera kulturalak burutu dituzten pertsonak, biztanleen %32,2

1.7. ALDERAKETA EUROPAREKIN

Atal honetan, alderaketa labur bat egin da Europako ohitura kulturekin, Eurostaten eta Espainiako Kultura Ministerioaren informazioa erabilita. Adierazle homologagarriak erabili dira, eta informazioaren erreferentzia-aldiak 2007 ingurukoak dira. Hala eta guztiz ere, iturri bat baino gehiagotatik eskuratutako datuen irakurketa alderatua kontu handiz egin behar da, metodologia-desberdintasun handiak daudelako, eta informazioa une batean baino gehiagotan jaso delako.

38. irudia. NAFARROAko eta EUROPAko kultura-adierezleen alderaketa (%)




(1) Iturria: Nafarroako Foru Erkidegoko kultura -ohiturei, -praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia
 (2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007
 (3) Iturria: Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta 2006-2007, Kultura Ministerioa



Irakurketa horren adierazleen arabera, Europako batezbestekoaren gainera dago Nafarroakoa, eta nahiko alde handia dago haren eta Espainiako datuen artean. Liburuen irakurketa Europako batezbestekoa baino bost puntu handiagoa da; are alde handiagoa du Espainiako biztanleen datuarekin. Liburutegietara joatearen datua hurbilago dago 27 estatuen Europatik Espainiako batezbestekotik baino.


Zinemara eta kontzertuetara joatearen datuak ere handiagoak dira Nafarroan. Espainiako batezbestekoak baino bost puntu gehiago, eta Europakoak baino sei gehiago ditu zinemara joateko ohituraren batezbestekoak. Zuzeneko musikak are alde handiagoa du Europarekin (Nafarroan biztanleen %44 joan da, eta 27 estatuen Europan, berriz, %37).

Antzerkiak jende gehiago erakartzen du Europan (%32). Nafarroa, alde horretatik, aztertutako bi erreferenteen erdian dago (%25).




ESTATISTIKA

Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa Ipar Euskal Herria 2007 ■ 2008



1.

KULTUR OHITURAK, JARDUERAK ETA KONTSUMOA IPAR EUSKAL HERRIAN: EMAITZA NAGUSIAK



- 1.1. Kultur jardueretikiko interesa
- 1.2. Biztanleriaren kultur ohiturak
- 1.3. Kultur jardueren eta kontsumoaren ezaugarriak
- 1.4. Euskarazko jarduerak eta euskal produktuen kontsumoa
- 1.5. Interneten erabilera kulturari dagokionez
- 1.6. Bertze kultur jarduera batzuetan parte hartzea
- 1.7. Europarekin alderatzea




1. KULTUR OHITURAK, JARDUERAK ETA KONTSUMOA IPAR EUSKAL HERRIAN: EMAITZA NAGUSIA

Kapitulu honek Ipar Euskal Herrian egin den estatistika-operazioaren emaitza nagusien ikuspegi sintetikoa aurkezten du. Kultur jardueretikiko interesean, biztanleriaren ohituretan, ohiko kontsumitzaileen ezaugarrietan, kultur arloan Interneti ematen zaion erabileran, biztanleria elebidunaren kontsumo eta jardueretan, eta, maila afizionatuan gauzatzen diren kultur jardueretan zentratzen da azterketa hau. Azkenik, Europar Batasuneko bertze informazio-iturrietako emaitzekin konparaketa egiten da. Aurkezten diren datuak Kultur ohiturak, jarduerak eta kontsumoa Ipar Euskal Herrian inkesta, 2007-2008, txostenetik hartuak dira, bertze iturri batzuk zehazten ez badira.

1.1. KULTUR JARDUERETIKO INTERESA

Irakurketa eta musika dira Ipar Euskal Herriko biztanleriarengan interes handiena pizten duten kultur jarduerak. Irakurketarekiko interesa 10etik 7koa da. Irakurketa orokorraren ondotik, liburuak eta egunkariak dira euskarri nagusiak. Musika laugarren lekuan da, batez bertzeko 6,4ko interesarekin, baina egungo musika edo musika klasikoko kontzertuetara joateko interesa apalagoa da: 5,6 eta 4,2 hurrenez hurren. Zinemak 10etik 5 gainditzen du; antzerkia, museoak eta erakusketa-gelak 4 inguruan kokatzen dira. Biztanleria elebidunari dagokionez, bertsolaritzarekiko interesa 3,6an kokatzen da. Dantza ere 3,6 inguruan kokatzen da. Balorazio apalenak arte-galeriek, liburutegiak eta lirikak dituzte.


1. irudia. Kultur jardueretikiko interes-maila (batez bertzekoa)




¹ Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.

Kultur jardueretako interesak ezberdinak dira lurralde batetik bertzera: Behe Nafarroan egunkarien irakurketa azpimarragarria da (7,2ko batez bertzekoa), Lapurdin aldiz irakurketa orokorki (7), eta Zuberoan musika orokorki (7,4). Zuberoako biztanleriak aztertutako jarduera gehienekiko interes handiagoa erakutsi ohi du.


2. irudia. Kultur jardueretako interes-maila Behe Nafarroan (batez bertzekoa)



3. irudia. Kultur jardueretako interes-maila Lapurdin (batez bertzekoa)



4. irudia. Kultur jardueretako interes-maila Zuberoan (batez bertzekoa)




¹ Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.



1.2. BIZTANLERIAREN KULTUR OHITURAK

Musika entzutea, liburuak irakurtzea eta zinemara joatea dira kultur ohitura hedatuena. Azken urtean ia 10etik 9k (%89,8k) entzun du musika, biztanleriaren %74k irakurri ditu liburuak eta %54,2 joan da zinemara.


5. irudia. Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Ipar Euskal Herrian (%)




Orokorki, kultur ohiturak berdintsuak dira lurralde batean eta bertzean. Musika entzutea eta liburuak irakurtzea dira kultur jarduerak nagusiak kasu guztietan.

Hiru jardueretan diferentzia aipagarriak agertzen dira: kontzertuetara joatea (Zuberoako biztanleriaren %44,1 joatean da eta Behe Nafarroako %16,7), dantza ikustera joatea (Zuberoan %31, Behe Nafarroan %7,7 eta Lapurdin %9,2) eta operara joatea (Zuberoan %16,2 eta Lapurdin %3,1).


6. irudia. Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Behe Nafarroan (%)



7. irudia. Pertsona kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Lapurdin (%)



8. irudia. Pertsonak, kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Zuberoan (%)




¹ Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.




Denbora eskasia da ez joateko arrazoi nagusia. Zinemara (biztanleriaren %46,7) edo antzerkia ikustera (%41) nahi baino gutxiago joaten da, denbora eskasiagatik. Jarduera batzuetara joatea baldintzatzen duen bertze faktore bat kostu ekonomikoa da. Sartzeen prezioa zinemara (biztanleriaren %38,8ren arabera) eta kontzertuetara (%36,1) gehiagotan ez joateko arrazoia da. Azkenik, biztanleriaren %28k uste du ikus-entzunezkoen eskaintza ez dela aski zabala.


9. irudia. Kontzertuetara joateko ohitura dutenen artean, gehiagotan ez joateko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago) (%)



10. irudia. Zinemara gehiagotan ez joateko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago) (%)




11. irudia. Taula gaineko ikuskizunetara gehiagotan ez joateko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago) (%)



1.3. KULTUR JARDUEREN ETA KONTSUMOAREN EZAUGARRIAK


Batez berte, hilabetean, ohiko irakurleek 2,3 liburu irakurtzen dituzte eta ohiko liburutegi erabiltzaileak 3,5 aldiz joaten dira liburutegira. Zuberoako biztanleriak du irakurritako liburu-tasa handiena (2,5 liburu hilabetean) eta Lapurdi arinki nabarmentzen da liburutegira joandako aldiei dagokienez (3,6 aldiz hilabetean).

12. irudia. Azken hilabetean zenbat joan den liburutegira batez berte lurraldeka



Oinarria: Joan ohi direnak (biztanleriaren %21,3 joan da liburutegira azken hilabetean)


13. irudia. Azken hilabetean zenbat liburu irakurri den batez berte lurraldeka



Oinarria: Ohiko irakurleak(biztanleriaren %56,4k irakurri ditu azken hilabetean aisiarekin zer ikusia duten liburuak)


Telebista 26 oren baino gehiagoz ikusten da astean batez berte, eta irratia 23,5 orenez entzuten da. Biztanleriak, batez berte, egunean 3,8 oren eskaintzen dizkio telebista ikusteari eta 3,4 oren irratia entzuteari.

14. irudia. Telebista ikusten eta irratia entzuten zenbat oren pasatzen den batez berte asteko, lurraldeka



Grabatutako musika entzun ohi dutenek, astean 11 oren eskaintzen diote jarduera horri. Lurralde batetik bertzera ez da ezberdintasun handirik.


15. irudia. Astean musika entzuten zenbat oren pasatzen den batez bertz lurraldeka



Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaren %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)


Zinemara eta antzerkira joateko ohiturak ez dira berdinak. Zinemako ohiko publikoa (biztanleriaren %38,5), 2,5 aldiz joan da azken hiruhilekoan, batez bertz; antzerkira joan ohi dena (biztanleriaren %7,5), aldiz, 1,4 aldiz joan da azken hiruhilekoan.

16. irudia. Azken hiruhilekoan, zinemara zenbat aldiz joan diren batez bertz lurraldeka



Oinarria: Joan ohi direnak (biztanleriaren %38,1 joan da zinemara azken hiruhilekoan)

17. irudia. Azken hiruhilekoan, antzerkira zenbat aldiz joan den batez bertz lurraldeka




Oinarria: Ohiko ikusleak (biztanleriaren %7,5 joan da antzerkira azken hiruhilekoan)




Azken hiruhilekoan liburuak erosi dituzten liburu-irakurleak biztanleriaren %43,1 dira, eta batez berteze, 2,7 ale erosi dituzte. Musikari dagokionez, biztanleriaren %39,8k erosi du musika azken hiruhilekoan.

18. irudia. Azken hiruhilekoan zenbat liburu erosi den batez berteze lurraldeka




Oinarria: Biztanleriaren %43,1ek erosi du libururen bat azken hiruhilekoan

19. irudia. Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituztenak lurraldeka (%)



20. irudia. Azken hiruhilekoan musika erosi dutenak lurraldeka (%)



1.4. EUSKARAZKO JARDUERAK ETA EUSKAL PRODUKTUEN KONTSUMOA


Ipar Euskal Herriko biztanleria elebidunak euskal musika kontsumitzen du. Azken hilabetean kontzertuetara joan den biztanleria elebidunaren %87 euskal musikako kontzertuetara joan da. Musika erosten dutenen artean, erdiak baino gehiagok euskal musika erosi duela dio. Zuberoan euskal musikaren kontsumoaren eta erosketaren ehuneko handiagoa da.

Biztanleria elebiduna euskarazko antzerkia ikustera asko joaten da. Azken urtean antzerkia ikustera joan den biztanleria elebidunaren %89 euskarazko antzerkiren bat ikustera joan da.

Azken hiruhilekoan irakurri duen 10 irakurle elebidunetatik 4k euskaraz irakurri du. Biztanleria elebidunaren %60k libururen bat irakurri du azken hiruhilekoan, eta horietatik ia %40k euskaraz irakurri du.


Azken hiruhilekoan irakurri duen 10 irakurle elebidunetatik 4k euskaraz irakurri du. Biztanleria elebidunaren %60k libururen bat irakurri du azken hiruhilekoan, eta horietatik ia %40k euskaraz irakurri du.

21. irudia. Elebidunak azken hiruhilekoan euskal musikaren kontsumoaren arabera lurraldeka (%)



(1) Oinarria: CDan edo bertzeko euskarri batean musika erosi dutenak, elebidunen %59,4
 (2) Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan direnak, elebidunen %19,6


22. irudia. Elebidunak euskarazko kultur jardueren arabera lurraldeka (%)



(1) Oinarria: Azken hiruhilekoan aisiarekin, lanarekin edo ikasketekin zer ikusia duen libururen bat irakurri dutenak, elebidunen %60,3
 (2) Oinarria: Azken urtean antzerkura joan direnak pertsonak, elebidunen %25,5


Ipar Euskal Herriko biztanleria elebiduna gutxi joaten da bertso-saioretara. Biztanleria elebidunaren %3,7 joan da bertso-saioretara azken hiruhilekoan, eta %8,6 azken urtean.

23. irudia. Elebidunak bertso-saioretara joateko duten maiztasunaren arabera (%)



Biztanleria elebidunaren artean, Interneteko euskarazko edukiaren kontsumoa web guneen kontsultara bideratzen da, gehienbat. Web guneak eta dokumentazioa kontsultatzea (%34,3) eta musika entzutea edo jaistea (%24,3) dira ohiko jarduerak, euskarazko edukietara jotzen duen biztanleria elebidunaren artean. Lurralde batetik bertzera ez da ezberdintasun handirik, nahiz eta azpimarratzekoa den, Behe Nafarroan, %17,9 blogetan sartzen dela, eta, Zuberoan, %10,5 irakurketa-edukiak dituzten web guneetan.

24. irudia. Interneten euskarazko edukietara sartzen diren elebidunak lurraldeka (erantzun bat baino gehiago) (%)



Oinarria: Biztanleriaren %37,8k erabiltzen du Internet kultur jarduera bat gauzatzeko


1.5. INTERNETEN ERABILERA KULTURARI DAGOKIONEZ

Biztanleriaren erdiak baino gehiagok kontsumitzen du kultura Interneten. Ipar Euskal Herriko biztanleriaren ia %58k erabiltzen du Internet kultura kontsumitzeko, bereziki Lapurdin (%61,5). Behe Nafarroan eta Zuberoan, aldiz, gutxiagok erabiltzen du sarea xede kulturaletarako (%57,1ek Behe Nafarroan eta %64,7k Zuberoan).


Internet bidezko kultur kontsumoak zerikusia du adinarekin. 44 urte baino gutxiagoko biztanleriaren %70ek baino gehiagok, eta, 15 eta 24 urte arteko %80k baino gehiagok erabiltzen du Internet kultura kontsumitzeko.

Formakuntza handiena duten pertsonak dira Internet bidez kultura gehien kontsumitzen dutenak. Ipar Euskal Herrian, unibertsitate-tituludunen %74,4k eta derrigorrezko hezkuntza ondorengo bigarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren %61,6k dio Interneten kultura kontsumitzen duela.

25. irudia. Pertsonak kultura kontsumitzeko Interneterako sarbidearen arabera lurraldeka (%)




26. irudia. Kultura kontsumitzeko Internet erabiltzen dutenak sexua, adina, hizkuntz gaitasuna, ikasketa-maila eta herriaren neurriaren arabera (%)



Jarduera ohikoenak musika entzutea eta kultur gaiei buruzko web guneak kontsultatzea dira. Kultura sarean kontsumitu ohi dutenen artean, jarduera ohikoenak musika entzutea (%38,6), kultur gaiei buruzko web guneak kontsultatzea (%37,7), egunkariak irakurtzea (%27,2) eta bideoak eta filmak ikustea (%24,3) dira.

27. irudia. Pertsonak Interneteko kultur edukietarako sarbidearen arabera (%)




Oinarria: Biztanleriaren %57,9k Internet erabiltzen du kultura kontsumitzeko



1.6. BERTZE KULTUR JARDUERA BATZUETAN PARTE HARTZEA

Ipar Euskal Herriko hamar biztanletatik lauk parte hartzen du kultur jardueretan. Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %42,7k kultur jardueretan parte hartu du azken urtean. Behe Nafarroan biztanleriaren ia erdiak hartzen du parte (%49,1), Lapurdin %42,1ek eta Zuberoan %38,2k.

28. irudia. Pertsonak kultur jardueretan izandako parte-hartzearen arabera, azken urtean, lurraldeka (%)



Musika-tresna bat jotzea da jarduera ohikoena, kultur jardueraren bat duen biztanleriaren ia laurdenak hautatzen du. Bigarren lekuan pintura dago (%23,1). Lurralde batetik bertzera ezberdintasunak daude. Zuberoan gehien praktikatzen dena dantza da, Behe Nafarroan abesbatzetan kantatzea eta Lapurdin musika-tresna bat jotzea.

29. irudia. Azken urtean Ipar Euskal Herrian kultur jardueretarako parte-hartze maila (%)



Oinarria: Biztanleriaren %42,7k parte hartu du azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan

30. irudia. Azken urtean Behe Nafarroan kultur jardueretarako parte-hartze maila (%)



Oinarria: Biztanleriaren %49,1k parte hartu du azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan

31. irudia. Azken urtean Lapurdin kultur jardueretarako parte-hartze maila (%)



Oinarria: Biztanleriaren %42,1k parte hartu du azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan


32. irudia. Azken urtean Zuberoan kultur jardueretarako parte-hartze maila (%)



Oinarria: Biztanleriaren %38,2k parte hartu du azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan


Gazteenek egiten dute kultur jarduera gehien. 15 eta 34 urte arteko gazteen erdiak kultur jarduera bat e giten du. Adin nagusiagokoek jarduera gutxiago egiten dituzte.batean parte hartzen dute; 55 urtetik gorakoen artean, berriz, %26,7k bakarrik.

33. irudia. Azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan parte hartu dutenak adinka (%)



Pintura, musika-tresna bat jotzea eta argazkilaritza dira gazteek gehien egiten dituzten jarduerak. Hiru jarduera horiek dira 15 eta 24 urte artekoek nahiz 25 eta 34 urte artekoek gehien egiten dituztenak. 64 urtetik goitikoentzat abesbatzetan kantatzeak edo idazteak pisu handia du.

34. irudia. Pertsonak azken urtean bertze kultur jarduera batzuetan izandako parte hartzearen arabera, adinka (%)




Oinarria: Biztanleriaren %42,7k azken urtean kultur jarduerak egin ditu

1.7. EUROPAREKIN ALDERATZEA

Zati honetan Europako kultur ohituren adierazleak alderatzen dira, Eurostat eta Frantziako Ministère de la Culture et de la Communication-en informazioekin. Adierazle homologagarriak hautatu dira, eta informazioaren erreferentzia aldiak 2007. urte inguruan kokatzen dira, baina, hala ere, hainbat iturritatik lortutako datuen irakurketak zuhurtziaz konparatu behar dira, diferentzia metodologikoengatik eta informazioa memento eta garai ezberdinetan bildu zelako.

35. irudia. Ipar Euskal Herriko eta Europako kultur adierazleen konparaketa (%)



(1) Iturria: Kultur ohiturak, jarduerak eta kontsumoa Ipar Euskal Herrian 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia
 (2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007
 (3) Iturria: Mini chiffres clés 2008, Ministère de la Culture et de la Communication.

Ipar Euskal Herriko biztanleriak Europar Batasunekoak baino liburu gehiago irakurtzen du, baina liburutegira gutxiago joaten da. Azken urtean libururen bat irakurri duen Ipar Euskal Herriko biztanleriaren ehunekoa Estatu frantsesekoa edo Europakoa baino handiagoa da (%76.9 IEHan, %71 EBean eta %58 Frantzian). Aldiz, liburutegira joateari dagokionez, ehunekoa Europako batez bertzekoa baino apalagoa da (%29,2 eta %37 EBean).

Ipar Euskal Herrian eta Estatu Frantsesean zuzeneko ikuskizunetara joaten den biztanleriaren batez bertzekoa berdintsua da. Azken urtean Ipar Euskal Herrian eta Estatu Frantsesean kontzertuetara eta antzerkira joan direnen ehunekoa berdintsua da. Bi kasuetan, Europar Batasuneko maila baino apalxeagoa da orokorrean.

Ipar Euskal Herriko biztanleriaren proportzio handiagoa joan da zinemara, Estatu Frantsesarekin eta Europarekin alderatuz. Ipar Euskal Herrian zinemara joateko batez bertzekoa Europakoa baino hiru puntuz handiagoa da eta Frantziakoa baino zazpi puntuz handiagoa. da (%35), Espainiako Kultura Ministerioak jasotakoa, berriz, askoz ere txikiagoa (%17,6).